

Euskalduna, burujabea eta publikoa

Lan baldintza egokiak izango dituen hezkuntza sistema propio, euskaldun, publiko, inklusibo eta anitza eskatzen du ELAk

Zer helburu ditu ELAk EAEko Hezkuntza Lege berrirako?

ELAk Euskal Herrirako hezkuntza lege bat nahi du; euskal herritarren borondatean oinarrituta eta Euskal Herriarentzat eraikia, gure herrirako hezkuntza sistema propioa eraikitzea ezinbestekoa dela uste baitugu. Kontziente gara gure nahia ez dela berehalako lege batean islatuko, ez EAEn, ez Nafarroan, ezta Iparraldean ere. Baina norabide horretan urratsak ematea eskatzen dugu, egungo egoera ezberdinetatik abiatuta, helburu berdinak irudikatu eta horietara heltzeko trantsizio bideak martxan jarrita.

Horrela, honako ezaugarri hauek barne bilduko dituen hezkuntza sistema da ELAk irudikatzen eta eskatzen duena:

- Hezkuntza sistema burujabea hala Espainiar eta Frantziar Esta-



tuen eredu uniformatzailearekiko nola kapitalaren eta enpresen interes eta esku-hartzearekiko ere.

- Erreferentzia-markoa Euskal Herrian duena eta euskalduna. Bizikidetzarako baloreen transmisioa bermatuko duen eta ikasleek ikuspegi kritikoa garatzea helburu izango duen hezkuntza sistema

nahi dugu. Halaber, indarrean dugun eredu gaituz, euskarazko murgiltze eredu bat eskatzen du ELAk, Euskararen ezagutza ziurtatzeaz gain, aisialdian ere hura erabiltzera bultzatuko duena.

- Gutxienez Barne Produktu Gordinaren %6 jasoko duen eta baliabide horiek modu orekatuan banatuko dituen hezkuntza sistema.

Irakasgela, LANGILEON TRESNA

Aurrean duzuen irakasgela buletina da. EAEko Hezkuntza Publikoko irakasleak informatzeko ELA sindikatutik sortu dugun euskarri berria. Momentuko gai garrantzitsuenak modu ulergarrian azalduta aurkituko dituzue hemen. Gure aldarrikapenak, eskaerak, azken berriak eta mobilizazioei buruzko informazioa ere bertan jasotzeko asmoa dugu. Desinformazioari aurre egiteko tresna izango da, beraz. Bonbardaketa propagandistikoari aurre egiteko langileon tresna.

- Hezkuntza sistema bakarra, publikoa eta anitza, egungo sare banaketa gaituzko duena eta hezkuntza komunitatea osatzen duten eragile guztien parte hartze demokratikoaren bidez, tokian tokiko errealitateei erantzungo diena.

- Hezkuntza sistema laikoa, sinesmen guztiak errespetatuz eta ez-konfesionaltasunetik, gizartean

diren erlijio eta sinesmen guztien ezagutza bermatuko duena.

■ Eta, noski, lan-baldintza egokiak bermatuko dituen hezkuntza sistema; hots, negozioazio kolektiborako eskubidea, lanpostuen egonkortasuna eta lan egiteko baliabide egokiak izatea bermatuko dituena.

Ezaugarri horiek izango dituen hezkuntza sistema baten bidean trantsizio neurriak eskatzen dizkio ELAk Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari. Azken horrek, aldiz, gaur egungo sistema,

ELAtik argi dugu etorkizunean gure hezkuntza sistemaren alde mobilizatu eta borrokatu beharko dugula.

bere gabezia eta inkoherentzia guztiakin mantentzeko hautua egin duela uste dugu. Ez da eraldaketarako borondate politikorik, ezta Hezkuntza Lege

berrian langileen iritzia eta inplikazioa kontuan hartzeko asmorik ere.

Egoera horren aurrean, ELAk pasa den martxoaren 25ean euskal eskola publiko guztira zabalduko zen greba egun bat egiteko proposamena luzatu zuen sektoreko beste sindikatu nagusienekin batera. Azkenean batasun sindikalaren hausturak greba horrek aurrera jarraitzea oztopatu zuen arren, ELAtik argi dugu etorkizunean gure hezkuntza sistemaren alde mobilizatu eta borrokatu beharko dugula.

Milaka behin-behinekoren kontsolidazioa behar dugu!

Eusko Jaurlaritzak bere langileen %40 behin-behineko izatera behartu nahi du; ez du betetzen ez Iceta Legea ez Europako agindua

» Zer da kontsolidazioa?

Kontsolidazioa behin-behineko egoeran lanean diharduten langileak finko bihurtzen dituen prozesua da. Ikastetxe publikoetan lanean dauden irakasleen kasuan, ordezkio edo bitarteko funtzionario izatetik karrerako funtzionario izatera pasatzea suposatzen du.

» Kontsolidazioa, finkapena, egonkortasuna, establizazioa ... sinonimoak dira?

Ez, ez dira inola ere berdinak, Hezkuntza Saila eta sindikatu batzuk sinonimo bezala erabili nahi izan dituzten arren. Kontsolidazioaren bidez ordezkio/bitartekoa funtzionario egiten da. Beste guztiakin, aldiz, irakasleak ordezkio/bitarteko izaten jarraitzen du (nahiz eta ikastetxe berdinean jarraitu edo horrelako "hobekuntzak" izan).

» Zer egoeratan gaude?

Gaur egun, %41eko behin-behinekotasun tasa dugu EAEko irakaskuntza publikoan. Horrek esan nahi du 13.000 irakasle baino gehiago direla, urteak joan eta urteak etorri, Hezkuntza Sailarentzat modu behin-behinekoan lanean dabiltzanak.

» Nola iritsi gara hona?

Administrazioaren utzikeriak eraman gaitu egoera honetara. Badirudi ez EAEn ezta Nafarroan ere gure agintariak ez dutela eskola publikoan sinisten. Zerbaitetan sinisten duzunean, ahalik eta baliabide gehien jartzen dituzu horretan eta begi-bistakoa da hezkuntza publikoan ez dela horrelakorik gertatzen. Gogoratu behar da behin-behinekotasun tasa izugarria izateak privatizaziorako bidea

errazten duela. Hezkuntzan bertan badauzkagu horren adibideak, esaterako: sukalde eta garbiketako langileak.

Autogobernua hainbeste goraiapatzen duten agintariak, Madrilek ezarritako birjartze tasei men egin eta gure hezkuntza sistemak dituen beharren arabera prozesuak abiatzeari uko egiten diote.

» Egonkortasun-aginduak egoera hau arindu du?

Ez. 2018an Hezkuntza Sailak eta gainerako sindikatu guztiak sinatu zuten akordioak egonkortasun agindua indarrean jartzea eragin zuen. Honek, bigarren galderan azaldu bezala, ez du behin-behinekotasunaren arazoa konpontzen, irakasleak ordezkio/bitarteko izaten jarraitzen dutelako. Gainera, egonkortasun-agindu horren aplikazioa guztiz aldrebesa izan zen, nahasmena besterik ez zuen sortu kasu askotan.

» Nora heldu beharko genuke?

Administrazioan gehienez %8ko behin-behinekotasuna izatea da Europar Batasunak ezarri duen helburua. Ondorioz, kontsolidazio prozesu berezi baten bidez, Hezkuntza Sailak %41ean den behin-behinekotasun tasa, gutxienez, %8ra jaisteko plangintza bat jarri beharko luke martxan.

» Zer proposatu digu Hezkuntza Sailak?

Maiatzean izandako bi mahai negoziatzaileetan proposamen guztiz eskasa luzatu zigun Hezkuntza Sailak. Azkenengoan, maiatzaren 6koan, kontsolidazio prozesuaren baitan 3.400 lanpostuko ez-ohiko eskaintza bat mahaigaineratu zuen. Horietatik, 2.700 inguru meritu-lehiaketa bidez eskainiko liriteke eta beste 700 inguru baztertzaila izaten jarraitzen duen oposizio "bigun" deiturikoaren bidez.



3.400 lanpostu horiez gain, beste 1.950 lanpostu inguru EPE arrunt baten bidez eskaintzeko proposamena egin zuen. Lanpostu horiek azken urteetako birjartze-tasari dagozkienak dira.

» Hezkuntza Sailaren proposamenak konpontzen du behin-behinekotasunaren arazoa?

Ez, inondik ere ez. 13.000 langile behin-behineko izanda, 3.400 ordezkoren kontsolidazio planteamenduak ez du behin-behinekotasuna %8koa izatea lortuko. Beraz, %8ko tasara heldu gabe, Hezkuntza Sailaren proposamenak ez du behin-behinekotasunaren inguruan dugun arazoa konponduko.

» Egoera honen aurrean zer proposatzen du ELAk?

Kontsolidazio prozesu bermatzaile bat, behin-behinekotasuna %8ra jaistea ahalbideratuko duena. Baita urteak behin-behinekotasunean lanean daramatzaten irakasle horien kontsolidazioa bermatuko duena ere.

Hortaz, lehen pausua 10.000 lanpostu inguruko lan-eskaintza publiko bat egitea izango litzateke. Eta bigarrena, kontsolidazio prozesu bermatzaileak burutzea; lanpostuak meritu-lehiaketa bidezko prozesuen bidez esleituz eta horietan, langileek administrazio horretan duten lan-esperientzia erabakiorra izanda.

» Zer egin dugu bide horretan?

ELArentzat berebiziko garrantzia du gai honek eta horrela adierazi izan diogu Hezkuntza Sailari izan ditugun negoziazio mahai guztietan. Horrez gain, hainbat izan dira egin ditugun eta egiten ari garen ekintza zehatzak, esaterako:

- Lege-proiektu baten eraketa eta aurkezpena. Gure zerbitzu juridikoen bidez, behin-behinekotasunarekin amaituko lukeen lege proiektu baten erredakzioa egin genuen. Ondoren, administrazio eta alderdi politiko desberdinei azaldu eta luzatu genien osatutako testua.

- 2021eko otsailaren 1ean Eusko Legebiltzarrean egoeraren inguruko analisia eta konponbide zehatzen azalpena.

- 2021eko apirilaren 22an funtzio publiko osoan egin zen GREBA EGUNA.

- 2021eko ekainaren 1ean kontzentrazioak ikastetxeetan.

- Beste hainbat kontzentrazio eta mobilizazio, urtarrilaren 18koa edo maiatzaren 2koa adibidez.

- Maiatzean zehar abian izan dugun sinadura bilketa, Jaurlaritzari bermedun kontsolidazio prozesu bat negoziatu dezala eskatzeko.

- Greba proposamenak gainerako sindikatuei: lehenik, 21/22 ikasturte hasieran, gaiari zentralitatea eman asmoz, greba proposamena luzatu genien sektoreko gainerako sindikatuei, hauek ez zuten beharrezkotzat jo; bigarrenez, maiatzean, Hezkuntza Sailaren proposamena ezagutu ondoren, greba proposamen zehatza luzatu genuen eta sektoreko gainerako sindikatuek ez zuten grebarako gure proposamenarekin bat egin. Hala ere, greba beharrezkotzat jotzen zuten ikastetxe guztiei hura bultzatzeko deialdia luzatu genien.

» Zer egin du ELAk gainerako sektoreetan?

Besteak beste, funtzio publiko guztian burutu zen 2021eko apirilaren 22ko greba egunaren bultzatzaile nagusi izan zen ELA.

Horretaz gain, ELAk mobilizazio oso esanguratsuak burutu ditu lehen indarra den sektoreetan, esaterako, Hezkuntza Sailaren menpeko Sukalde eta Garbiketean: hiru greba egun martxoaren 29, 30 eta 31an eta beste bost greba egun maiatzaren 23a eta 27 bitarte. Bi kasuetan ELAK bakarrik deituta.

